

ADMINISTRAZIO-

AKORDIOA

ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA JUSTIZIA AUZITEGIAREN
ARTEKOA

ADMINISTRAZIO-AKORDIOA, ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA JUSTIZIA AUZITEGIAREN ARTEKOA

Alde batetik, Espainiako Erresumak, eta, bestetik, Justizia Auzitegiak,

Ikusita, Europar Batasuneko Gai Orokorretako eta Kanpo Harremanetako Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioak, Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan hizkuntza gehigarriak ofizialki erabiltzeari buruzkoak,

Akordio hau sinatzen dute: **ADMINISTRAZIO-AKORDIOA, ESPAINIAKO ERRESUMAREN ETA JUSTIZIA AUZITEGIAREN ARTEKOA**, Justizia Auzitegiaren eta Espainiako herritarren eta egoiliarren arteko komunikazioen esparruan ofizialki erabili ahal izateko 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntzak.

I. artikulua

1.1 Espainiako legeriaren baldintzetan eta 2005eko ekainaren 13ko Kontseiluaren Ondorioen arabera, Espainiako herritarrek edo egoitza soziala Espainian duen edo bertan bizi den edozein pertsona fisikok edo juridikok aukera izango dute Justizia Auzitegira idatzizko komunikazioak bidaltzeko Espainiako ordenamendu konstituzionalaren arabera Espainiako lurraldean ofizialak diren gaztelaniaz besteko edozein hizkuntzatan.

1.2 Aukera hori ezingo da baliatu:

- komunikazio jurisdikzionalak direnean
- testu legal bat aplikatzearekin lotutako testuak direnean
- helburu hauetako bat lortu nahi dutenak: abantaila bat, zuzenekoa edo zeharkakoa, bereziki, dirulaguntza bat; onura bat, bereziki kontratu baten adjudikazioa, edo eginkizun bat, bereziki enplegu baterako hautagaitza.

1.3 Ez bada gaztelania erabiltzen, ahalmen hori prozedura honen arabera gauzatuko da:

- Herritarrak Espainiako Erresumako Lurralde Politikako Ministerioaren Hizkuntza Ofizialen Bulegora bidaliko du idatzia, Justizia Auzitegira bidal dezan gaztelaniazko itzulpen ziurtatuarekin batera.
- Justizia Auzitegiak gaztelaniaz erantzungo du, eta aipatutako bulego horretara bidaliko.
- Aipatutako bulegoak ahalik eta eperik laburrenean bidaliko dio interesdunari Justizia Auzitegiaren erantzuna, jatorrizko komunikazioaren hizkuntzara egindako itzulpen ziurtatuarekin batera.

Espainiako Erresumako Lurralde Politikako Ministerioaren Hizkuntza Ofizialen Bulegoak itzulpenetan egindako akatsak ezingo zaizkio egotzi Justizia Auzitegiari, eta hala jasoko espresuki Justizia Auzitegiak herritarrei bidalitako erantzunetan.

2. artikulua.

Justizia Auzitegiak komunikazioak bidaltzaileari itzuliko dizkio baldin eta, gaztelaniaz ez, baizik eta 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera estatutua aitortua duen gaztelaniaz besteko hizkuntza batean idatzita badaude eta badaramate Espainiako Erresumako Lurralde Politikako Ministerioaren Hizkuntza Ofizialen Bulegoak egindako itzulpen ziurtaturik.

Kasu horretan, Justizia Auzitegiak honako hau jakinaraziko dio interesdunari: Justizia Auzitegiarekiko komunikazioak bere hizkuntzan izateko eta erantzuna hizkuntza berean jasotzeko duen eskubidea baliatu nahi badu, horretarako izendatutako organismoari bidali behar dizkio komunikazioak (1.3. artikulua).

3. artikulua.

Justizia Auzitegia behartuta badago epe jakin baten barruan erantzutera, epe hori hasiko da zenbatzen jatorrizkoaren gaztelaniazko itzulpena jasotzen duenetik aurrera.

Epearen zenbaketa eten egingo da Auzitegiak gaztelaniazko erantzun-idatzia bidaltzen duenean Espainiako Erresumako Lurralde Politikako Ministerioko Hizkuntza Ofizialen Bulegora.

4. artikulua.

Administrazio-akordio hau sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute akordio honetan sartzen diren komunikazioen konfidentziasuna uneoro errespetatzeko behar diren neurriak har daitezzen.

5. artikulua.

Espainiako Gobernuak bere gain hartuko ditu Justizia Auzitegiak administrazio-akordio hau praktikan jartzeak eragin ditzakeen zuzeneko edo zeharkako kostuak.

Horretarako, Justizia Auzitegiko administrazio-zerbitzuen arduradunak, urtero, ohar bat egingo du kostu horiekin, eta Espainiako Estatuari eskatuko dio ordain diezaiola, oharra jaso eta hurrengo hiru hilabeteen barruan.

6. artikulua.

Akordio hau aplikatzen hasiko da Espainiako Gobernuak Justizia Auzitegiko idazkariari jakinarazten dionean Lurralde Politikako Ministerioaren Hizkuntza Ofizialen Bulegoa prest dagoela Akordioaren I. artikulua 1.3 puntuan aipatzen diren itzulpenak bere gain hartzeko.

7. artikulua


Alderdiek administrazio-akordio hau berrikustea proposatu ahal izango dute, edo amaitutzat ematea, eta, indarrean jarri eta urtebetera, nola aplikatu den aztertuko dute.

Justizia Auzitegiak,



R. Grass jauna,
Idazkaria

Por el Gobierno español,



Sr. D. López Garrido,
Europar Batasuneko
estatu-idazkaria